

461/2024 EBAZPENA, EKAINAREN 19EKOA, OSAKIDETZAKO GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIARENA. ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN ETA ZERBITZU EGINKIZUNEN BIDEZ OSAKIDETZAKO ZUZENDARITZA NAGUSIKO FINANTZA ZUZENDARITZA EKONOMIKOKO ADMINISTRAZIO KONTRATAZIOKO ZERBITZUAN GOI MAILAKO ARLO JURIDIKOKO TEKNIKARI ARDURADUN LANPOSTU BAT BETETZEKO.

LANPOSTUA: GOI MAILAKO ARLO KORPORATIBO JURIDIKOKO TEKNIKARI ARDURADUNA.

DESTINOA: Zuzendaritza Nagusia, Finantza eta Ekonomia Zuzendaritza, Administrazio Kontratazioko Zerbitzua.

Lanaldi zatitua (Vitoria-Gasteiz).

HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA: 3. HE; derrigortasun-data: 2013/12/03.

BALDINTZAK: (Agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota egon ezean).

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratuko langile finkorik ez izatea, GOI-MAILAKO TEKNIKARI JURIDIKO gisa, izendapen edo kontratu horrekin zerikusia duen administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lortu nahi den titulazio-maila bereko edo txikiagoko beste kategoria batekoa izatea.
- Goi Mailako Teknikari Juridikoaren karrerako funtzionario, estatutupeko langile finko edo lan-kontratu finkorik ez izatea, izendapen edo kontratu horrekin lotutako administrazio-egoera edozein dela ere.
- Zuzendaritza Nagusira langile finko gisa atxikita egotea, Zuzendaritza Nagusiko langileen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Zuzendaritza Nagusiaz bestelako zerbitzu-erakunde batera langile finko gisa atxikita egotea, zerbitzu-erakundearen arteko barne-sustapenaren kasuan.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako barne-sustapenean badago, egoera horretan urtebete baino gehiago jarraian egotea.
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritako titulazioa eta deitutako azken EPEko kategoriaren deialdiko oinarrietan eskatzen diren gainerako titulazio-eskakizunak izatea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Karrerako funtzionarioa, estatutupeko langilea edo lan-kontratadun finkoa izatea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeei atxikia, edo Osasun Sistema Nazionaleko gainerako osasun-zerbitzuetako karrerako funtzionarioa edo estatutario finkoa, Goi Mailako Teknikari Juridikoaren kategorian.
- Zerbitzu aktiboan egotea eta lanpostua jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzuli delako atxikita dagoen zerbitzu-erakundea ez den beste batean lanpostuak betetzeko eskaera egitea.

Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epearen azken egunean bete behar dira.

MEREZIMENDUEN BAREMOA (agiri bidez egiaztatu beharko dira, CV aplikazioan jasota ez badaude):

Aldi baterako barne-sustapena eskatzen dutenentzat:

- EPEko oposizio-fasea (Gehienez 100 puntu)
- Lanbide-esperientzia (Gehienez 80 puntu)

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Zerbitzu-eginkizunen eskatzaileentzat:

- Lanbide-esperientzia, kategoria honetako azken lekualdatze-lehiaketan. (Gehienez 47,5 puntu).

Eskabideak aurkezteko epea irekitzen den egunera arte aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

EUSKERAREN EZAGUTZA:

Euskararen ezagutzaren balorazioari dagokion puntuazioa Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrituz egingo da.

ESKABIDEAK AURKEZTEA:

Interesdunek Osakidetza Zuzendaritza Nagusiko Giza Baliabideen Zuzendaritzari (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz) zuzendu beharko diote eskabidea, datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako curriculum vitaearekin (aplikazio informatikoan baliozkotuta dutenak izan ezik) eta eskatutako ezagutza espezifikoak egiaztatzeko egokitzat jotzen duten dokumentazioarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea 10 egun baliodunekoa izango da, deialdia web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

LEHENTASUN HURRENKERA

Lanpostua betetzeko lehentasun-ordena honako hau izango da:

1. – Aldi baterako barne-sustapena Zuzendaritza Nagusian. Lanpostua betetzeko sistema hori erabilia ezin bada lanpostua bete, hurrengo atalean aurreikusitakoa erabiliko da.
2. – Zerbitzu-eginkizunak. Sistema hori erabiliz lanpostua ezin bada bete, hurrengo paragrafoan aurreikusitakora joko da.
3. – Zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapena.

BALORAZIO BATZORDEA:

Balorazio-batzorde bat eratuko da, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera. Giza Baliabideak Hautatu eta Hornitzeko zuzendariordea edo haren ordezkaria izango da batzordeburua, eta honako kide hauek izango ditu: Administrazio Kontratazioko Zerbitziburua, Erosketetako Zerbitzu Korporatiboko burua eta Hornidurako Zerbitzu Korporatiboko burua (azken horrek idazkari gisa jardungo du).

HAUTAKETA-PROZEDURA:

Interesdunek garaiz eta behar bezala aurkeztutako dokumentazioa aztertuko du Batzordeak. Aurrekoa ikusita, dagokion izendapena formalizatzeko proposamena egingo da. Balorazio Batzordeak plaza bete gabe utzi ahal izango du, izangaiek eskatutako baldintzak betetzen ez badituzte.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea emango da, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko ekainaren 19a

 **Osakidetza**

Luisa Larrauri Ereñozaga
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA
DIRECTORA DE RECURSOS HUMANOS**GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA****LUISA LARRAURI EREÑOZAGA**